



Berrikuntza
Profesionalen Eskola
Escuela de Innovación
Profesional

Goi-mailako teknikaria

Administrazioa eta finantzak



ZER EGITEKO GAI IZANGO ZARA?

- ✓ **Proiektuen** arabera lan egiteko, elkarlanean eta taldeetan integratuta.
- ✓ Enpresa publiko edo pribatu baten lan-, kontabilitate-, zerga- eta finantza-eragiketak garatzeko.
- ✓ Enpresan salerosketarako dokumentazioa diseinatzeko eta kudeatzeko: eskaerak, albaranak, fakturak, BEZaren likidazioak.
- ✓ Merkatuan enpresa-kudeaketan aritzeko, ekintzailtzeko eta ERPko (Enterprise Resource Planning) konpetentziak bereziki indartuta. ETE-entzako SAGE.
- ✓ Enpresako langile-saila kudeatzeko: kontratuak, enplegatuen altak eta/edo bajak, nominak...

2 urte 2000 ordu	Astelehenetik ostiralera 8:30 - 14:30	Hizkuntza-eredua A
---------------------	--	-----------------------



Titulu ofiziala



Praktikak
enpresetan



Presentziala eta
prestakuntza duala



Proiektu-metodologia



Orientabide
integrala



Lantokiko Prestakuntza Europan **ERASMUS+** programarekin: azken urteotan ikaslek Alemanian, Frantzian, Holandan, Italian, Polonian, Portugalen, Txekiar Errepublikan eta Erresuma Batuan egin dituzte praktikak.

GURE METODOLOGIA

Gure prestakuntza-eskaintza berritzailea proiektuetara eta ikasleen garapen profesional zein personalera bideratuta dago, **profil kualifikatu eskatuena** lortzeko. Etengabeko komunikazioa dugu enpresekin, eta horrek aukera ematen digu lan-munduaren premiak ezagutzeko eta **gure zikloak haien enplegarritasuna ziurtatzeko moduan egokitzeko.**

IKASKETA-PLANA

Lehen kurtsoa

- Komunikazioa eta bezeroentzako arreta
- Giza baliabideen kudeaketa
- Giza baliabideak eta gizarte-erantzukizun korporatiboa
- Bulegotika eta informazioaren prozesua
- Merkataritza-jardueraren prozesu integrala
- Ingelesa. Ziurtagiri ofizialak lortzeko prestakuntza
- Laneko prestakuntza eta orientabidea

Lan-irtenbideak

Norberaren konturako langileak izan daitezke, norberaren enpresaren kudeaketa eginez edo jarduera ekonomiko baten jardun librearen bitartez, hala nola finantza-aholkularitza batean, lan-aholkularitza batean edo proiektu-estudio batean.

Lanpostu nagusiak hauek izango dira:

- Kontabilitateko administraria, finantza-administraria, giza baliabideen administraria
- Bankuko eta aseguru-etako administraria
- Aholkularitza juridiko edo fiskaletako edo kontabilitate- edo lan-aholkularitzetako, edo gestoretako administraria

Bigarren kurtsoa

- Kontabilitatea eta zerga-arloa
- Dokumentazio juridikoaren eta enpresakoaren kudeaketa
- Finantza-kudeaketa
- Logistika- eta merkataritza-kudeaketa
- Enpresa-simulazioa
- Administrazio- eta finantza-proiektua
- Lantokiko prestakuntza

Osatu zure prestakuntza:

Gurekin:

Goi-mailako beste ziklo bat:

- Marketina eta publizitatea
- Web-aplikazioen garapena

Espezializazio-ikastaroa (LANBIDE):

- Zerga-arloa, Finantza- eta aseguru-inbertsioak

Sartu unibertsitatean:

- Enpresen administrazio eta zuzendaritzako gradua
- Lan-harremanetako eta giza baliabideetako gradua
- Zerga-arloko eta administrazio publikoko gradua

Gure laguntzaileetako batzuk



Nola sartu?

Zuzeneko sarbidea: batxilergoa, LOGSE, UBI, 4. IEE, LH II edo erdi-mailako LH gainditzea.

Proba bidez: goi-mailako zikloan sartzeko proba gainditzea.